

Nork: [erik gartzia](#) - maiatza 24, 2017

ETXEAN IBILTZEKO MODUKOA IZANGO DA AURTENGO SAGARDO EGUNA



Hamabost sagardogileen uza dastatzeko aukera egongo da.

Maiatzeko azkeneko larunbata izango da datorrena. Eskualdeko ekitaldien agendan data garrantzitsua izango da: Oiertzungo Sagardo Egunaren txanda izango da. Aurtengoa 28. ekitaldia izango da, eta Girizia elkarteak antolatuko du, udalaren laguntzarekin.

Aurreko urteetan egun osoko egitaraua antolatu bazuten arren, aurtengoa arratsaldez bakarrik izango da. Giroa kontzentratuagoa egongo da. Hala ere, gainontzean, aurreko ekitaldien antzeko egitaraua izango du XXVIII. Sagardo Egunak. 18:00etan hasiko da sagardoaren festa. Protagonista izango den zukuak beste hainbat bidelagun izango ditu, Done Eztebe plaza eta inguruak girotzeko: pintxoak, musika, bertso eskolako kideak... Baso bakoitzak sei euro balioko ditu, eta sagardoa bukatu arte iraungo du festak.

Urtero bezala, hainbat sagardogile omenduko dituzte. Aurten Oiertzungo bi sagardogile (Baleio eta Ordo-zelai) eta Lesakako Linddurrenborda izango dira aitortza jasoko dutenak. Horrez gain, aurten ere umeentzako jolasak eta txokolate jatea antolatu dituzte, Euskal Herria plazan, 17:00etatik aurrera.

Honoakoak izango dira parte hartuko duten hamabost sagardogileak:

- Baleio (Oiertzun).
- Ordo-zelai (Oiertzun).
- Larrarte (Astigarraga).
- Lizeaga (Astigarraga).
- Oialume-Zahar (Astigarraga).
- Oiarbide (Astigarraga).
- Petritegi (Astigarraga).
- Otsu-Enea (Hernani).
- Larre-Gain (Hernani).
- Otegi (Lasarte-Oria).
- Linddurrenborda (Lesaka).
- Elutxeta (Urnietia).
- Aginaga (Usurbil).



ERRETERIA-ORERETAKO KIROL TALDEEN ASTEBURUKO PARTIDAK

LOTUTAKOAK

ETIKETAK

ATALA

EGILEA



Nerabeen artean jarrera osasuntsuak susta ...

Nork: [erik gartzia](#) - maiatza 25, 2017

■ Gizartea



Gezala auditorioak aldagelak izango ditu

Nork: [urko etxebeste](#) - maiatza 23, 2017

■ Kultura



[Galeria] Giro ederra Emakumeen Birako a ...

Nork: [erik gartzia](#) - maiatza 22, 2017

■ Erreteria-Orereta



Inongo ez direnean

Nork: [ikerne zarate](#) - maiatza 22, 2017

■ Kultura

Albiste irakurrienak



GOGORZARI 100.2 ARTIKULUA EZARTZEKO ESKATU DUTE ORERETA IKASTOLAKO LANGILEEK



KUADRILLEN EGUNEKO KAMISETEN KOLOREA AUKERA DAITEKE JADA



ERIK GARTZIA

Ez dago ekarpenik

EGIN IRUZKIN BAT

Izena *

Email *

Website



CAPTCHA Code *

BIDALI IRUZKINA

[Cookie Politika](#) | [Pribatutasun Politika](#) | [Lege Oharra](#)

© Oiertzualdeko Hedabideak S.L. • Santa Klara kalea, 22, Errenteria-Orereta 20100 - Tel.: 943-34 03 30 - E-posta: oarsobidasoa@hitza.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia



WEBGUNE HONEK BAT EGITEN DU [CREATIVE COMMONS](#) ERABILERA LIZENTZIAREKIN.

